



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Igandea  
2008-06-22

VIURTEA 1.467.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## BERO-BERO SUA PIZTERAKO

**SAN JOAN JAIAK** Koadrilen Egunarekin hasi zituzten jaiak atzo Tolosan; kirol ekitaldiak izan ziren nagusi egun osoan

**ABALTZISKETA - BELAUNTZA** Herenegun hasi ziren; gaur Abaltzisketan zaldi karrera eta Belauntzan herri kirolak 6-7



**JULEN ZELARAIN** AAM-REN AUZIAN INPUTATUA

«Epai honekin errepresioa salatzea kriminalizatu nahi dute»

**VILLABONA** Amaitu den Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako epaiketaz aritu da 5

**Kirola eta gastronomia Ekuadorrekin elkartrukea egiteko**

**ZIZURKIL** 'Ekuadortik Zizurkilera, elkartrukeko hamabostaldia'-ren baitako ekitaldiak izan ziren atzo 7

**AHT dela-eta «eskualdean egingo dituzten indusketak» salatu dituzte**

**TOLOSA** 'Sondeorik ez!' lelopean elkarretaratzea egin zuten atzo AHT Gelditu! elkarlanak deituta 7



Suziria jaurti ondoren, erraldoiak dantzan hasi ziren. Behean, izkingileen erakustaldiaren une bat. E. EZEIZA / N. GARZIA



## Kurtso amaiera



### » Uzturretik

**Andu Martinez de Rituerto**

**I**kasturtea amaitu da eta zenbait ikaslek porrot sentsazioarekin ekingo diote udako sasoiari. Non-dik dator lana behar bezala burutu ez izanaren zapore mingots hori?

Bizitzaren edozein alderdian aurrera egin ahal izateko lana egin behar da, ekitea ezinbestekoa, aspaldiko Nafarroa Oinez bateko leloak zioen bezala *ezina ekinez eginga*.

Eta zer pasatzen da ikasleak, seme-alabak lanik egiten ez duenean? Besteen martxa galtzen duela eta ibilbide akademikoan galtzen hasten dela. Eta, nola jokatzeko dugu irakasle zein gurasook honen aurrean? Ba... askotan, ardura guztia ikaslearengan jarritz. Nire ustez ikasle batek lana egiteari uzten diotenean bere inguruan gaudenok zer gertatzen den aztertzen hasi behar-

ko ginateke: arazo pertsonalen bat ote duen, alferkerian erori ote den, edo, ohikoena ene aburuz, ez da gai agindu zaion lana eta agindu zaion eran egiteko; egin beharrekoa bere pentsamenduaren garapenean duen abstrakzioarako gaitasuna baino gehiago eskatzen duelako seguraski.

Lan oso zaila izanik ere, irakasleok ikasleen garapenean erritmoak gehiago egokitu beharko ginatekeela pentsatzen dut. Jaiotzez gure genetik agintzen dutena alde batetik eta norberak bizitzan izan dituen estimuluak bestetik, bakoitzaren

garapen psiko-fisiko baldintzatu-koto dute. Gorputz Hezkuntzako irakaslea naiz, eta arestian aipatutako arrazoiengatik, ditudan ikasleen gaitasun fisiko oso-oso ezberdina da. Denok erraz ulertzen dugu nik ezin diedala ikasle guztiei emaitza berberak eskatu egiten ditugun froga fisiko ezberdinetan. Bi metro saltatu ezin dituenari halaberrez bi metro saltatu behar dituela esaten badiot, behin saiatuko da, beste bi edo hiru aldiz ere agian, baina bosgarrengoan etsi-etsita saiatzeari utziko dio; alper halakoa! Egiten duena egiten duela, nik hori hobetzeko lana egin dezan eskatuko diot, eta nik bere prozesua jarraituko dut eta bere lana gainbegiratu eta gidatuko dut, eta bere gaitasun-

nen arabera lanak agintzen badizikiot egingo ditu eta egiten badi-tu aurrera egingo du.

Agian inozo xamarra naiz, baina pentsatzen dut, denoi gustatzen zaigula gauzak ondo egitea eta egin ditzakegunean saiatzen gara gehienetan. Badakit irakaskuntza-ikas-kuntza prozesua ez dela nik azaldu dudana bezain sinplea, hamaika al-dagaiek eragin handia izango dute, eta hasieran aipatu dudana bezala, lanik eta esfortzurik gabe, ez dagoela aurrera egiterik, baina ikasleei lana egin ahal izateko baldintza egokiak jarri behar dizkiegu. Zer eta nola irakasten dugun beste gako garrantzitsuenetako bat da irakaskuntzan, baina hori beste batetarako utziko dugu, oporrak datoz eta.

### A Asteko irudia



## Pilotaren festa handia Leitzan

**KIROLA** • Buruz buruko Pilota Txapelketaren finala izan zen pasa den igandean. Bi leitzarren artekoa, Bengoetxea VI. eta Barriola-ren artekoa, beraz, Leitzan gertzen zela txapela argi zegoen. Herri bereko finalistak izatea 3 aldiz baino ez da gertatu, beraz, pentsatzeko da bezala festa giroa izan zen nagusi igande osoan Leitzan nahiz Atano III.a pilotalekuan. Azkenean, pronostiko guztien aurka Bengoetxeak jantzi zuen txapela, 22-11 irabazi ostean. Finalaren biharamunean txapeldunak azaldu bezala, «txapel honek pilotan aurrera jarraitzeko indarra eta lasaitasuna emango dit». Atsedena ostean, bihar jokatuko du partida Beotibarren, Arretxe II.aren aurka. G. GARAIALDE/ARGAZKI PRESS

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

Tolosako Udalak XXII. Uxola sariak banatu berri ditu; ondorengoak dira hizlauan lehen saria jaso duten lanetako batzuk.

## AMETSA ALA ERREALITATEA?

Kaixo! Ni Aitor naiz, hamar urteko mutikoa. Nire amak dioenez irudimen handiko mutikoa omen naiz; txiki txikitatik azaldu omen dut joera hori. Horrela, amonak egindako neguko txapela jantzi eta astronau-tarena egiten ibiltzen omen nintzen nire arma sekretuak eskuetan nituela, biberioa eta txupetea hain zu-zen ere. Beste behin berriz, amaren aurreko mantala hartu, labadorako xaboi potea eta bi koilara eta Do-nostiako danborradako danbor nagusia nintzelakoan, tzunpa-tzunpa-tzun ibili omen nintzen etxe guz-tian gora eta behera, bizilagunak nazka-nazka eginda protestatzen etorri ziren arte.

Inguruak guztiak diotenez amaren antza izugarria omen dut, berak txikitzen zuen aurpegi berbera omen dut, buru handia, ile horikia, kopeta zabal eta nabarmena, bekain iletsuak, begi argi handiak, belarri txikiak, sudur fin luzekoa, masail haragitsu eta bigunak eta aho txikia.

Gorputzez ere, amaren kalkoa omen naiz. Nire gorputza... Ai ene! Non da nire gorputza? Burua beste-rik ez dut! Baina... zer geratu zait!!! Buru bat baino ez naiz! Nire inuru guztia zuri dago. Baina, itxaron apur-

txo bat! Gorputza sortzere ari zait, eta besoak, baita hankak ere. Nire ingurua ere sortzen ari da! Orain, men-di batean nire logelan azaldu naiz, begiak igurtzi eta oraintxe oharitu naiz, ametsa besterik ez dela izan, marrazki baten ametsa. Eguzkiaren printzek logela argitzen dute. Goiza heldu da; jaiki, gosalduta, hortzak garbitu eta jantzi ondoren eskolara joan naiz. Plastika daukagu eta gaur kurtsoko azken eguna denez nahi duguna egiteko baimena daukagu. Bart egindako ametsaz gogoratu eta hori marrazteko erabakia hartu dut. Bukatu baino lehen, ni konturatzerako, marrazkiaren barruan nago berriz ere. Mendi batean nago. Ani-malekin jolastu eta ondo pasatzen ari naiz. Ordu bete pasatu dela iruditua eta marrazkitik irteretakoan le-hengo ordura itzuli naiz. Baina... hau ere ametsa izan al da bada?

*Iker Garate Iturzaeta (1. maila, LH 3 eta 4. Samaniego herri eskola)*

## AMAREN BILA

Kaixo lagunok! Ni Xabi nauze eta 12 urte ditut. Gaur, Mikel, nire lagun-minari, gertatu zitzaion istoriotxo bat kontatuko dizuet. Ah! Ahaztu baino lehen, Mikel ez da gizaki bat, euli bat baizik, baina hala ere nire lagun hobereana da.

Behin, eskolatik hegan herri txiki bateko teilatu batean zegoen zulo batera nindoala, nire etxera alegia, ni baino pixka bat handiagoak ziren bi ttantto beltz pasa zitzaizkidan ziztu bizian nire muturren aurretik, bat beste ari tiraka hirirantz, baina ez nion garrantzirik eman —hasi zitzaidan kontatzen.

Etxera iristean, nire amaren bila hasi nintzen etxeko lanetan laguntzeko, baina ez nuen inon aurkitu. Horrela, aitararengana jo behar izan nuen eta ama non demontre sartu zen galdetu nion. Bera, berriz, negar-reez hasi zen. Orduan, anai txikiarengana jo nuen, eta berak bahitzaile batek eraman zuela esan zidan ko-petilun. Hori entzun nuenean estatua bat baino geldiagoa gelditu eta negarrez hasi nintzen —jarraitu zuen ahots tristearekin.

Orduan konturatu nintzen etxera nentorra ikusi nituen bi ttantto beltz haiek nire ama eta bahitzaile-a zirela. Korrika nire gelara joan nintzen atsekabaturik eta oraindik negarrez. Ohearen gainean egon nin-tzen arratsalde osoan eta azkenean plan bat burutu zitzaidan —esan zidan harro-harro. Plana amaren bila joatean zen. Pentsatu eta egin. Hurrengo goizean goiz esnatu, inor konturatu gabe, eta abiatu egin nin-tzen hiri alderantz. Behe lainoa zegoen eta ez zen asko ikusten, horregatik ia-ia auto baten kontra talka egin nuen —esan zidan nahiko lotsaturik.

Lau orduz noraezean ibilintzen. Jada eguzkia aterata zegoen eta laino arrastorik ere ez zen ageri. Bat-batean burrunba hotsa entzuten hasi nintzen eta konturatu nintzen hirira iritsi nintzela, autoz jositako hi-rira. Segituan etxe bateko leiho bat irekita ikusi nuen eta barrura sartu nintzen. Barruan, hain nekakuta nengoen zorabiatu egin nintzen, beno, hori uste dut —esan zidan irribarretsu. Berritro esnatu nintzene-an kristalezko botila baten barruan sartuta nengoen eta bitartean, bi haur, begira-begira zeuden. Orduan konturatu nintzen haurrak izan zirela han barruan sartu nindutenak. Bat-batean, bi haur haien atzean an-dre bat azaldu zen eta haurrei hori ez zela egin behar eta euliek ere sentimenduak zituztela esan zien. Haurrek, triste, askatu egin ninduten eta ni ziztu bizian irten nintzen leihotik —arnasa hartu eta berritro kontatzen jarraitu zuen.

Kanpoan konturatu nintzen jadanik ilundu zuela eta argi ibili behar nuela hegazti batzuekin, hontzekin batez ere. Horregatik, beste etxe batera sartu nintzen babesteko. Etxe barruan beste euli asko zeuden eta galdezka hasi nintzen euli susmagarri ikusi al zuten beste euli batekin. Denek ezetz erantzun zidaten eta azkenean nekakuta lotara joan nintzen.

Hurrengo goizean, galdezka jarraitu nuen. Euli bat oso urduri jarri zela konturatu nintzen nire galdeke-taren aurrean. Susmagarria iruditua zitzaidan eta horregatik bere atzetik jotzea erabaki nuen. Kale iluneta-

tik ibili ginen, zulo txikiak zeharkatu genituen baina bera azkenean oharitu egin zen ni atzetik nindoala eta ziztu bizian alde egin zuen. Lastima! —esan zidan atsekabaturik.

Berritro noraezean ibili ondoren, beste etxe batera sartu nintzen eta argi urdin bat ikusi nuen sabaitik zintzi-lik. Oso erakargarria iruditua zitzaidan. Hurbildu orduko oharitu nintzen euli eta intsektu asko zeudela hilda argi urdin erakargarri hartan. Orduan oharitu nintzen begien aurrean nuena intsektuak hiltzeko lanpara besterik ez zela —esan zidan ahots harroaz.

Etxe hartatik irten aurretik mokadutxo bat jan eta kalera joan nintzen. Kalean, aurreko eguneko euli sus-magarria ikusi nuen beste euli bati tiraka eta beraren atzetik abiatu nintzen. Lehengo bide berdinetatik era-man ninduen baina oraingoan ez zen oharitu ni atzetik nindoala txintik atera gabe. Azkenean zulo handi ba-tera iritsi nintzen, ezkutuko zulo batera —esan zidan misterioitsu.

Zulo hartan armiarma sare handi bat zegoen eta euli susmagarriak hara bota zuen beste eulia —esan zuen beldur plantak egiten.

Paisaia beldurgarri hartan nire ama ikusi nuen armiarma sarean korapilatuta eta beregana joan nintzen ziztu bizian. Susmagarria oharitu egin zen eta nire gainera etorri eta borroka luzea egin genuen. Horretan geundela, armiarma etorri eta susmagarria eta biok azpian hartzen saiatu zen —orduan ikaragarriko ga-rراسيا bota nuen.

Hala ere, jarraitu zuen, nik erreflexu handiak ditut eta segituan hanka egin nuen. Susmagarriak armiarman hatzaparretan bukatu zuen; nik bitartean, euli guztiak askatu nituen —esan zidan herri aho-tszaz.

Armiarma, susmagarria jan bezain laster, gainera etorri zitzaidan. Dena galduta ikusten nuenean, euli guztiak armiarmanarengana jo eta garaitu egin zuten —eta nik ikaragarriko lasaitua hartu nuen.

Euli guztien artean airean hartu ninduten. *Hip-hip hurra* abesten zuten. Denek eskerrak eman zizkidaten eta baita nik beraieiri, bezizta salbatu zidaten eta. Guztiok, oso pozik gure etxeetara joan ginen baina de-netatik zoriostuena ni joan nintzen nire amarekin —esan zidan zoriostu.

Etxera iritsi ginenean ania eta aita negarrez aurkitu genituen lur jota, baina ama eta biok ikustean mal-koak lehertu eta guregana etorri ziren oso pozik. Handik aurrera etxeko herria naiz eta oso pozik bizi gara —esan zidan harro-harro.

Orain herriko herria bihurtu da animala guztientzat eta denek «tainaink ez duela inporta bihotzak bai-zik» diote, edota bestela begiratu Mikel euliori...

Mikelen istorioa amaitu da orain kontatu ezazu zuk zeurea. Agur!

*Gorka Sorrairain Agirrezabala (II. maila, LH 5 eta 6. Samaniego herri eskola)*

## PARISERA BIDEAN

Beldurtuta nago, hotz eta gose naiz. Kaixo, nire izena Pedro Leblanc da eta 13 urte ditut. Frantsesa nazi, eta era berean, judutarra. Oraintxe bertan, zubi baten azpian nago, bakarrik eta esperantzarik gabe. Zer-gatik nagoen egoera negargarri honetan? Ba hau dena, orain dela egun batzuk hasi zen. 1942ko abendu-ko 2a zen, eta bigarren mundu gerra hasi zela badira 3 urte. Gaueko hamarrak ziren eta ohean nengoen, kanpoan erortzen ari zen elurrari begira. Bat-batean ate hotsak entzun nituen. Atearen beste aldean ze-goen jendea, «ireki atea» esaten ari zen, garrasika. Ama korrika eta amasestuka nire gelan sartu zen eta azkar ohetik ateratzeko eta jantzeko esan zidan. Nik beldurtuta, zer geratzen zen galdetzen nion, baina berak ez zidan erantzuten. Jantzi ondoren, jangelara eramaten ninduen bitartean, kanpoaldeko garrasiak geroz eta ozenagoak zirela eta atearen kontra jotzen zituzten kolpeak handiagoak zirela oharitu nintzen.

Amak, suteetako larraldia eskaileretara eramaten zuen leihoa ireki eta kanpora ateratzeko esan zidan. Ondoren, kopetan muxu bat emanez, hauxe esan zidan: «Joan zaitetz Parisera eta bertan bila ezazu zure izeba Zezilia. Baina, batez ere, saihes itzazu alemaniar patruilak eta beti ezkutuan ibili». Beste muxu bat emanez, leihoa itxi zuen, ni kanpoan bakarrik utzi. Ni beheraka joaten hasi nintzen, baina bat-batean zur eta lur geratu nintzen, amaren garrasiak entzun nituenean. Baina gehiago beldurtu nintzen pistola baten tiroa entzun nuenean.

Hauxe da nire istorioa eta orain, kalean nago, bakarrik, beldurtuta. Parisera joaten saiatu naiz, baina bel-durregi naiz, nire gurasoak bezala bukatzeko. Ez dakit zer egingo dudan. Zubi azpian babes txiki bat egin ondoren, lo hartu dut.

Goizeko zazpiak ziren eta elurra ari zuen goitik behera. Kalean jendea zebilen eta alemaniar patruilak ere bazebiltzan, alde batetik bestera. Ni oraindik erdi lotan nengoen, baina nire atzean entzun nuen hots batek aztoratu egin ninduen, eta nire bihotzak leher egin behar zuela sentitzen nuen. Baina niri hizketan hasi zitzaidan pertsona ez zen soldadu amaren baten ahotsa, neskato baten ahotsa baizik. Neure burua biratu nuen eta neskato altu bat ikusi nuen. Bere itxura negargarria zen. Kamixeta eta galtzak zulatua z-

tuen, hanka bateko bota hautsia, eta bere ahotsa ahula zen. Goiz osoa hizketan pasa ondoren, neskato hura ni bezala, gurasorik gabe geratu zela jakin nuen. Paula zuen izena eta 13 urte zituen. Noraezean zebilen eta orduan, nirekin etortzeko proposatu nion. Berak baiezkota eman zidan.

Parisera joateko egin behar zen lehenengo gauza geltokira joatea zen. Patruila asko sailhestu ondoren, iritsi ginen azkenean, Mont Parnas-eko geltokira. Baina orain, beste arazo bat genuen. Nola har genezake-en tren dirurik izan gabe? Hamar minutu geltokiko eserlekuan egon ondoren, ideia bat otu zitzaidan. Tren-aren ondoran, kafez beteriko zaku batzuk zeuden eta bertan sartzea pentsatu nuen. Paularekin hitz egin ondoren, zakuen artera korrika abiatu ginen eta bertan izkatatu. Trenera karroan igo, eta trenaren abiatu zene-an, bertatik atera ginen. Orduan, ekipaiaren konpartimenduan geundela oharitu ginen. Trena gelditu zela oharitzean, berritro izkatatu ginen, trenetik ateratzeko. Zakuen artean soldadurik ez zegoela oharitzean, ka-pora atera ginen, baina, Paulak nahi gabe, zaku bat bota zuen eta hau ireki egin zen, kafe guztia lurrera bo-taz. Orduan, soldadu guztiak gure atzetik korrika hasi ziren. Gu ere korrika hasi ginen, noraezean, beldurtu-ta eta okerrean esperoz.

Kalean behera gindoazela, parke txiki bat ikusi genuen. Bertara joan ginen eta hango hesi batzuen atzean izkatatu ginen. Amasa moztu zitzaidan soldadu baten hankak ikusi nituenean hesiaren beste aldean, gure bila. Baina laster berrskuratua nuen, urruntzen ari zela ikustean. Arriskua urrundu zenean, telefono kabina batera jo genuen eta Zezilia Leblanc bilatu genuen. Hemendik ez oso urritu zegoen kale bateko etxean bizi zela oharitu eta ixilean, bertara hurbildu ginen. Etxean sartutakoan, bere pixuko atea jo genuen eta berak ire-ki zuen atea. Egin nuen lehenengo gauza, besakada handi bat ematea izan zen. Gero sartzeko esan zigun eta nik, istorio osoa kontatu nion. Orduz gerotzik, Zeziliarekin bizi gara, Paula eta biok, Paula niretzat arreba bat bezala baita.

*Jokin Zubizarreta Oteiza (III. maila/DBH 1 eta 2. Hirukide Eskolapioak)*

tolosaldeko hitza. **iragarkilaburrak.com**

saltzeko  
erosteko  
eskaintzeko  
eskatzeko  
aurkitzeko  
...



www.iragarkilaburrak.com  
uztarria.iragarkilaburrak.com  
txintzarri.iragarkilaburrak.com  
otamotz.iragarkilaburrak.com  
elgoibarren.iragarkilaburrak.com  
soraluze.iragarkilaburrak.com  
bidasoamedia.iragarkilaburrak.com

ukberri.iragarkilaburrak.com  
oarsosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com  
busturialdeko hitza.iragarkilaburrak.com  
11barri.iragarkilaburrak.com  
urola-kostako hitza.iragarkilaburrak.com  
irutxuloko hitza.iragarkilaburrak.com  
goierriko hitza.iragarkilaburrak.com

*milaka bisita, egunero*

## zure-azoka

**Erregistratu zaitez**  
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

**norbanakoak**  
*doan*

**enpresak**  
*leku eskusiboa*

*Jarri zure  
iragarkia!*

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa  
**100.000**aleko zabalkundearekin.

**E Elkarrizketa**

**JULEN ZELARAIN** ▶ AAMren aurkako auzian inputatuta

# «Errepresioa salatzea kriminalizatu nahi dute epaiarekin»

IMANOL GARCIA

Amnistiaren Aldeko Mugimenduen (AAM) aurkako epaiketa aste honetan amaitu da. Orain auzipetuak epaiaren zain gelditu dira. Horien artean dago Julen Zelarain (Villabona, 1967).

**Epaietaren ondoren, prentsaurkeoa egin duzue auzipetuek. Zer azaldu duzue bertan?**

Lehendabiziko egunean esandakoak auzian zehar konfirmatu egin dela. Hau da, bere sustapen guztia politikoa izan dela eta AAMren kriminalizazioa eta illegalizazioa direla helburua, eragile desoroso bilakatzen garelako Estatuarentzako. Konklusioetan, batez ere Fiskaltzaren aldetik azaldu direnak, oso garbi agertu da. Fiskaltzak aipatzen du AAMri leporatzen diola espesxe politika eta bergizarteratzea porrot bat izan bada gure erantzukizuna izan dela. Guk horren aurrean esaten dugu maila batean egia dela, espesxe politikak salatzaren aritu garelako, presoan sufrimenduan oinarritzen delako beraien borondatea bortxatzeko. Horregatik, sakabaketaaren aurka egin dugu, isolamenduen aurka egin dugu, eta horrek emaitzak eman ditu presoen elkartasuna areagotuz.

**Epaiaketa nola eraman dute epai-leek eta Fiskaltzak?**

Epaiaketa maila batean eskizofrenikoa izan da, batez ere epaiaren aldetik. Berak esaten zuen ez zirela epaitzen AAMren aktibitateak, baizik eta AAMn lanean ari ziren inputatuen ekimen deliktiboak. Estatuaren aldetik errepresioa pairatu duten batzuk lekukoak eraman genituen eta behin eta berriro epaimahaiak moztu egiten ziren, esanez espesxe politika edo gerra zikina ez zela epaitzen auzi horretan. Eta hau gezurra da. Behin eta berriro ikusi dugu hor epaitzen zela AAMren dinamika, baina Fiskaltzak egiten duela behin eta berriro dinamika horren interpretazio interesatu eta okerra. Guk presoekin dugun harremana da bereziki pairatzen duten espesxe politika salatzeke. Baina horretaz ezin dugu hitz egin. Orduan zer geratzen zait hitz egiteko? Esatea ez dela egia? Baina orduan Fiskaltzak demonstratu beha-luke kontrakoa eta ez du egiten.



I. GARCIA

**Zuen defentsak konklusioetan azaltzen duenez, Fiskaltzak ez du frogarik erakutsi.**

Teoria bat da hor dagoena. Guk erantzukizunak salatzen badizkiogu alderdi bati edo Gobernuari esanez espesxe politikarekin edo torturarekin zer egiten ari den, Fiskaltzak egiten duena da hori interpretatu. Esaten du hori ETAk edo EKInek agindutakoa dela eta orduan hori deliktiboa dela. Hori bere interpretazioa hutsa da. Eta frogarik aurkeztu behar ditu mahai gainean, ez interpretazioak. Badago dei bat non pertsona batek hitz egiten du beste batekin eta batek esaten du: «Bihar pasatuko naiz egoitza garbitzera». Eta fiskaltzak egiten duen interpretazioa da garbitze hori egoitzan egon daitezkeen «dokumentu zikinak» ezabatzeko dela. Eta berak hori frogabatean bilakatzen du eta pertsona baten gainean dagoen «froga» bakarra da eta horregatik 10 urte eskatzen dizkiote.

**Zuri eta beste bi auzipetuei hamar urtetik hamahiru urteetara igo dizuete zigor eskaera.**

Ez eta kuriosoena da ere hiru urte gehiago eskatzen dizkigutela eta Fiskaltzak eta akusazio partikula-

rrak ez du esan ezta hitz erdi bat zergatik hiru urte gehiago eskatzen dizkiguten. Ez dago inongo esplikaziorik. Hori bai, luze eta zabal aritu ziren zergatik beste hiru pertsona akusaziorik gabe gelditu diren. Azalpena ematen du argi eta garbi gelditzeko auzia ez dela politikoa eta banaka aurkeztuko direla akusazioak. Baina benetan egin beharko duena Fiskaltzak da azaldu zergatik dauden beste 24 pertsona inkulpatuta. Eta beste galdera da: elementu berririk mahai gainean azaldu ez direnean, nolatan egon dira hiru pertsona horiek esanaritu honetan zazpi urtez?

**Epaiaren zain gelditu da epaiketa. Zer espero duzue?**

Guk garbi daukagu Estatu batek martxan jartzen duenean horrelako dinamika bat ez duela atzera joko. Are gehiago, okerrera da etorkizunari begiraguztat ondorio pertsonalak baditu eta hori guretzako garrantzitsua da, baina azkenez politikoki auzi kualitatibo

bat emango da epaiarekin. Orain arte Estatuak errepresioa inpunitate osoarekin aplikatzen bazuen, sistema judizial-legegile berezi batekin, hemendik aurrera errepresio hori salatzea ere kriminalizatu dute epaiarekin.

**Egunotan mobilizazioak egin dituzue epaiaketa salatzeke.**

Epaiaren esperoan, eta ondoren ere kriminalizatzen bagaituzte, salaketa dinamika hori bere horretan mantenduko da. Argi eta garbi utziz zeini erantzuten dioten sententzia hauek, zer helburu bilatzen duten eta zer ondorio dituen.

**Astero Madrilera joatea nola eraman duzu?**

Maila batean gogorra da. Zure bizitza bitan banatzen da. Bata ohizkoa da eta bestea auzien egunetakoa. Horrek apurtzen zaitu, eta nahiz iruditu ohikoa bilakatzen den egoera bat dela, igande gauean seme zaharrarekin bereziki zaila zen agurtzea, Madrilera joan behar al nuen galdetzen zidalako.

**Babes falta salatu duzue gizarteren parte batetik.**

Oso adierazgarria egin zaigu alderdi politiko eta instituzioen aldetik zenbateko ixiltasuna mantendu den egoera honen inguruan. Badirudi herri honetan ematen diren hainbat gertaerei buruz alde batetara begiratzen den moduan, beste gertaera batzuen inguruan begiak itxi egiten direla eta ez dela ikusi nahi hor zer gertatzen den. Guretzako hori izugarriko arduraz falta da. Horrelako jarrerak errealitatek urruntzen gaitu eta errealitatek urruntzen garen heinean benetazko irteera batetik ere urruntzen gara.

## San Joan azoka bereziak bisitari asko erakarri ditu Tolosara

PABLO ALBERDI

Azoko sanjoanetako azoka berezia oso giro politoan egin zen Tolosan. Eguraldia lagun zela, bisitari asko gerturatu zen hirira eta saltzaile-ekoizleen ahalegina argi ikusi zen mahaietan. Berritasun dexente izan ziren eguraldi onarekin etorri zirenak, leka edo eta San Joan sagarra kasu.

Perretxiko zerrenda ere bultzatuta ikusi genuen, eta aukeran zizak, ziza horial, onddoak, gibelurdinak eta senderuelak izan ziren mahaietan. Dirudiezez, eta eguraldia laguntzen badu, datozen egunetan gure mendietan maiz azalduko dira perretxikoak.

Berdura plazan animazio handia izan genuen baratzarako landaren postuetan. Erosle asko izan ziren beraien baratzak betetzekoan, euria eta udaren ondorioak sahisteko.

**» ATZOKO AZOKA**

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
<b>Landareak</b>		
Alegria	1,00	1,20
Geranioa	2,00	-
Erromero	4,00	6,00
Kalendula	2,50	-
Surfinia	2,40	-
Salbia	1,00	1,20

**BERTAKOAK Perretxikoak**

Ziza horia	20,00	-
Ziza	12,00	35,00
Gibelurdina	20,00	-

**NEREX Lentzeria**

Bodiak  
Pijamak  
Kamisoiak  
Kamisetak  
Batoiak  
Pikardiak  
Tangak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA  
Tel.: 943 67 16 30

### Iragarki laburrak

**LANA**

■ **Tabernaria.** Neska euskalduna behar dugu tabernan lan egiteko. 943 65 30 93.

■ **Zaintzailea.** Neska/emakume euskalduna behar da, haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ez da udarako. 635 72 20 47 / 635 71 24 41.

■ **Begiralea.** Begirale tituludun pertsona bat behar dugu uztailearen 10etik 20ra. Udaleku txikiak. Deitu 628 94 72 53.

**SALGAI**

■ **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa salgai. 669 67 36 49 zenbakira deitu.

**OSPATZAZU SAN JOAN JAIK BENETAKO ERREGE-OPILAK DASTATUZ. EKAINAREN 21 ETA 22AN SOILIK.**

Plaza zaharra, 7 • TOLOSA  
Tel.: 943670727

**aldama\_tapia**  
aholkulariak

Tel.: 943 65 03 75  
Faxa: 943 65 52 06

Foruen Etorbidea 7 • 20400\_TOLOSA\_Gipuzkoa  
gtolosa@aldamatapia.com • www.aldamatapia.com

argiketariak & igeltseroak  
iturkinak & pintoreak  
arozak

eskaioista & dekoratzaileak  
zoruak & leihoak  
altzariak & sukaldeak

... eta orain  
**VARIÉR by STOKKEKO**  
eserlekuak saltzan ditugu

**Sanjoanako ondo pasa!**

Nafarroa etorb. 12 • Tolosa  
Tel.: 943 65 36 40

**IKATZA**

**PINTXOAK - BOKATAK ANOAK PLATER KONBINATUAK**

Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa  
Tel.: 943 67 49 13





Atzo suzuria jaurtitzearrekin batera eman zieten hasiera San Joan jaiei; lehendabiziko eguna Koadrilena izan zen, eta goizetik hasi ziren ekitaldiekin. NAIARA GARCIA / ESTI EZEIZA

# UDARI ONGIETORRI BEROA

**Sanjoanak** » Uda hastearrekin batera ekin diete Tolosan jaiei; Koadrila Eguna izan zen atzokoa; Belauntzan eta Abaltzisketan ere jaietan daude.

## ESTI EZEIZA

Festa giroa duela egun batzuetatik nabaria bazen ere, atzo hasi ziren ofizialki Tolosako San Joan jaia. Goiz-goizetik, jendea kalera atera zen antolatutazeuden ekitaldietan parte hartzeko. Jaian hasiera iragarten zuen suzuria 12:00etan bota zuten, baina ordurako kaleetan bazegoen zer ikusirik. Esaterako, kirolzaleak Usabalen bildu ziren. Bertan jokatu baitzen Tolosa Kup areto futboleko finala. Honez

gain, igeriketako XL. Sanjoan saria ere bertan jokatu zen. Beotibar pilotalekuan berriz, eskualdeko puntistak aritu ziren, bertako Zesta Punta eskolak antolatutako txapelketan. Baina atzoko eguraldia aprobetxatu beharra zegoen, eta kalean ere hainbat jarduera burutu ziren. Esaterako, Euskal Herriko nahiz kanpoko artisaun produktak, jakiak, bitxiak... aurki zitezkeen. Hauekin batera, haurtxoen arretra berezia pizten zuten euskal

pottokak ere aurki zitezkeen kalean. Gainera, askok gainean ibiltzeko aukera ere izan zuten.

Nabarmentzekoa da Tolosako festetan tarte berezia dutela kirolek. Arratsaldean ere proba eta txapelketa ezberdinak jokatu ziren. Alde batetik, hiri guztia zeharkatuz ibili ziren Agustín Urkola izeneko txirindularitza frogan parte hartu zutenak. Bestalde, Iurrea-mendiko zelaietan II. Segatxapelketa jokatu zen.

Eguneko ikuskizunekin jarraituz izkingileak izan ziren arratsaldean, beraien abileziak erakutsiz. Baina atzoko eguna bereziki koadrilei zuzendua zegoen, eta denek batera, elkarrekin ospatu zuten festen hasiera. Goizean, 11:30ak aldera hasi ziren biltzen Plaza Zaharrean, beroari aurre egiteko trago batzuk hartuaz. Eguerdian, Ferialekuan egin zuten bazkaria eta hain bertan, jokuak egin zituzten. Hala, goizaldera arte luzatu zuten egunez hasitako parranda.



## Sanjoan jaietan, «hordago!»

**ABALTZISKETA** • Eskualdean, Sanjoan jai ospetsuenak Tolosako baldin badira ere, beste herri batzuetan ere ospatzen dira, esaterako, Abaltzisketa eta Belauntzan. Alegialdeko herrian, atzo VI. Mus Txapelketa jokatu zen Larrunarri elkartearen 18 bikotek hartu zuten parte, jokalaritza guztiak bertakoak zirelarik. Iluntzean berriz, sagardo dastaketa izan zen plazan, eta txerri harrapaketa. Gaur ere hainbat ekitaldi izango dira bietan. n.g.

**MAIXINA** Sanjoan  
ondo pasa!!  
Etxekotresna elektrikoek konponketa  
Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

**OKINDEGLA**  
*kixubi*  
Gozotegia eta kafetegia

Erniobera, 3  
Billabona

Etorri  
eta dasta  
itzazu!

Ogi beroa eta aukera zabala  
produktu berriekin!

Ondo pasa  
Sanjoanek!  
**Tolosalde** BUS S.L.  
Ibilaldak • Ezteiak Agurariak • Ikastetxeak Kirol taldeak  
Tel eta fax: 943 650621 • 619 723 819 • Donostia Etorb. 9 • TOLOSA

**Marcel** LEARMINDEKIDEN GAIK  
BERGINTZA  
Santa Klara, 9  
TOLOSA  
943 671930



Kirol ekitaldi ugari izan ziren etzokoan Tolosan. ESTI EZEIZA



## Benta-Aldea jatetxean jai eguna

**TOLOSA** • Tolosako Benta-Aldea jatetxean atzo urtero bezala festa ospatu zuten eguerdian. Aurrena aizkolarien arteko norgehiagoka egin zuten eta idi-proba bertan behera gelditu zen, engantxearekin arazo bat izan zutelako. Arrospeide, Aierbe, Olasagasti, Mendizabal, Arria eta Larretxea elkarren aurka aritu ziren, bikoteka. Lehenengo saioa Arrospeide eta Aierbe aizkolariek irabazi zuten eta bigarrenra, berriz, Olasagastik eta Mendizabalek. N. GARZIA



## Ekuadorko zaporea Zizurkilan

**ZIZURKIL** • Ekuadortik Zizurkilera: elkartrukerako hamabostaldia zirkloaren barruan atzo pare bat ekitaldi egin zituzten goizean: hasteko ekua-voley partidak jokatu zituzten eta eguerdi aldera Ekuadorko janari dastaketa egin zuten, plazan eta jaki ugari prestatu zituzten, gehienetan platanoa oinarritzko osagaia zelarik: *corviches, maduros, tamales, tortitas de verde, suspiros* eta *espumilla* izeneko jakiak dastatu ahal izan zituzten. N. GARZIA



## 'Sondeorik ez' lelopean, AHTren aurka

**TOLOSA** • Atzo Trianguloan *Sondeorik ez, inposaketarik ez* lelopean elkarretaraztea egin zuten, *AHT Gelditu! Elkarlana* taldeak deituta. Bertan Tolosaldeko zenbait herriren egoera salatua nahi izan zuten: Aduna, Zizurkil, Anoeta... «Hernialden, esaterako, hilaren 12an izan ziren Jauriaritzako ordezkarriak, indusketen planoak eramateko. Bertan 9 indusketen zuloak aurrikusten dira, eta oraingoz ez dute baimenik jasotako». E. EZEIZA

BERRIA  
CITROËN C4 SEDÁN ERANTSITAKO BALIOA.



Espazioan inbertitu.  
15.150€<sup>tik</sup>, ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI

Citroën gaman inbertitu ezazu:

Citroën C2 7.980€<sup>tik</sup>  
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI



Citroën C3 8.500€<sup>tik</sup>  
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI



Citroën XSARA PICASSO  
13.300€<sup>tik</sup>  
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI



Citroën C4  
11.300€<sup>tik</sup>  
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI



ZATOZ IKUSTERA: **IROVI, S.A.**

Citroën Konzesionario Ofiziala  
Industrialdea z/g. • Anoeta / Tolosa  
Tel.: 943 65 18 42

**CITROËN**   
NO TEBAKINASLO GUTZ ERDIOEN FURDE HAZIR FOR IT



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### San Joan jaiak

■ **Abaltzisketa.** Gaur: 10:30. VI. Plater tiraketa lehiaketa 12:30. txakolin poteoa, Xapre eta Furriela trikitilariarekin. 18:00. Zaldi karrera Amezketatik Abaltzisketara. Ondoren, txalapartariak eta trikitilariak. 21:00. Afaria herriko plazan. 22:30. Auzolanean emanaldia.

Bihar: 11:30. Ume jolasak. Ondoren hamaiketako. 21:30. San Joan Sua. Ondoren, San Joan Dantza eta Soka Dantza herriko gaztetxoek dantzaturik 22:30. Asto karrera. Ondoren, Imuntzo eta Beloki.

■ **Belauntza.** Gaur: 12:00. Meza. Ondoren hamaiketako. 17:30. Herri Kirolak: Harri-jasotzaileak eta aizkolarik. Ondoren, sagardo dastaketa gaztarekin.

Bihar: 17:00. Ume jolasak. Ondoren, txokolatada. 21:00. San Joan sua kanpai eta etxafuegoekin.

■ **Tolosa.** Gaur: 09:00. Diana, Giro Arte dultzaina taldearekin. 10:00. Xake-jokoa, Kultur Etxean, XXXII. Enrique Pineda memoria. Goizez eta arratsalde haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan. 12:00. Batel estropadak. 12:00. Usabalean padel txapelketen finalak, XVIII. San Joan saria. 14:30. Zerkausion, zezen zale elkarrekin bazkaria. 17:00. Plaza Zaharretik zezen plazara, Tolosako Musika Banda, agoaziltxo eta zaldi mutilekin. 18:00. Berdura plazan, Gari, Montxo eta Joxeleontxo haur ikuskizuna. 18:00. Zezenketa, zezen plazan: Javier Conde, Juan Bautista eta Ivan Fandiño toreatzaileak.

18:00. Erraldi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroekin. Irteera Plaza Zaharretik. 19:30. Mariatxi Imperial Azteca taldearen kalejira. 23:00. Su festak I. bilduma: Z. Caballer.

23:30. Berdura plazan Mariatxi Imperial Azteca taldea. 23:30. Plaza Berrian Desordutan eta Kerobia.

Ondoren, Makala DJa. Bihar: Egun osoan haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan. 11:00. San Fran-



## Asto bat 85 lagunentzat

**HERNIALDE** Atzo Hernialden asto-jatea egin zuten herriko elkarteak eta Udalak antolatuta. Imanol Iruretagoiena herriko elkarteko kideak azaldu duenez, «herri honetakoak astoak bezala ezagutzen gaituzte eta hori dela eta asto-jatea egitea erabaki genuen». Atzokoa lehenengo aldia izan zen Hernialden asto-jatea antolatzen zutela, eta goizean goizetik lanean hasi ziren herritarrek, hain zuzen ere, 06:00etan hasi baitziren asto erretzen. 85 lagun bildu ziren bazkarian. n.e.

tziskon, Toka Lehiaketa. 12:00. Berdura plazan Ertzaintzaren musika banda. 17:00. Txistularien kalejira, antzinako erronda bidetik. 18:00. Sortzez Garbia plazan, haur ikuskizuna, Kiki, Koko eta Moko. 18:00. Usabalean, Squash Txapelketaren finalak, XVIII. San Joan saria. 18:00. Trianguloan herri kirol saioa. 19:30. Zerkausion bertso jaialdia. 19:30. Udaltza Plaza Zaharretik abiatuko da Arrameleko San Joan kapera-ko bezperetan eta arrats otoitzetan parte hartzeko. 22:00. San Joan sua, Andre Maria plazan. Ondoren, Udaberri Dantzari taldea eta Tolosako Musika banda. Jarraian, Tolosako Orfeoia. 23:30. Euskal Herria plazan Kora (Senegal). 23:30. Berdura plazan, Pier Paul Berzoiz. 23:30. Plaza Berrian Abiba.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Et Incarnatus orkestraren kontzertua, 12:30ean, gaur, Urkizun.

■ **Anoeta.** Elkarretaratzea «presoneko egoeraren inguruan, bihar, 19:30ean, herri sarreran.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

### Bihar

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

**LASKORAIN IKASTOLA**

**SANJOANETAN EUSKARAZ**

www.laskorainikastola.net  
Tel.: 943 697 127  
p. elektronikoa: tolosa@ikastola.net

**IKASTARO TRINKOAK**

INGELESA - FRANTSESA  
ALEMANA - ITALIERA  
TXINERA

**elduainen**  
hizkuntza-erakidea

**UDARA**  
UZTAILA-ABUZTUA  
Egunero ordu bate, bi edo hiru ordukoak

**MATRIKULA IREKITA DAGO**

(Sn. Sn. Onddarreta)

**DONOSTIA:** Infanta Cristina Etorbidea 15, Itxas-Lore etxea, Ondarreta - Tel/Fax: 943 31 07 53 - 943 31 37 90 - **INTXAURRONDO:** Pedro Axular 4, Behea - Tel/Fax: 943 27 24 63 - **TOLOSA:** Martin Jose Iraola 8, 3-Ezk. Tel/Fax: 943 67 00 52 - 943 67 12 75 /Kondeaneko Aldapa, 30 - Tel/Fax: 943 67 47 33 / Nafarroa Etorbidea 12 entlo. Tel/Fax: 943 67 00 52 - 943 67 12 75 - **LASARTE:** Pablo Mutiozabal 2, 1. solairua - Tel/Fax: 943 37 27 81 - **URNIETA:** Dendaldegia, 6 Behea - Tel/Fax: 943 55 58 58 - **VILLABONA:** Kale Berria 46, 2-B - Tel/Fax: 943 69 63 73 - **ALEGIA:** San Juan 46 - Tel/Fax: 943 65 57 26